

# BERRIGARA

15. zenbakia

JARDUN Elkarte, Bergara

1995, urtarrilak 13




## Kirol Sariak 94

Herriko kirolarien lana aitortzeko ordua

8<sup>,5</sup>

U.T.B  
5.000.000  
pta.rako3  
urtera



3 URTERAKO  
GARANTIZATUTA



CAJA LABORAL

EUSKADIKO KUTXA

# Gozogintza Ikastaroa

Joxemi Sagastumeren eskutik

*San Blas opilak. Peilak. Kruasanak,  
boiloak eta opilak. Krema, nata, moka,  
txokolata eta abarreko betegarriak,  
Euskal pastela, Hojaldrea...*


**NOIZ:** Urtarrilaren 25etik martxoaren 1era (asteazkenetan). **ORDUTEGIA:** Arratsaldeko 4retatik 6retara. **PREZIOA:** JARDUNeko bazkideak, 2.000 pzta. Bazkide ez direnak, 2.500. **IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA:** Urtarrilak 23, JARDUN Elkartearen (Masterreka, 13)

ANTOLATZAILEA:



LAGUNTZAILEAK: Bergarako Udala • Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



**Kutxa fundazioa**

ERROTALDE JAUREGIA  
20570 Bergara  
Tinoa eta Faxe: 76 03 97

**Argitaratzailea:**  
JARDUN Elkarteak.  
Masterreka, 13 Bergara.  
Tinoa eta Faxe: 76 08 19

**Zuzendaria:**  
Gorka Elorza

**Erredakzioa:**  
Eneko Azkarate  
Eduardo Mendibil  
Mikel Elkoroberezar

**Maketazioa:**  
Eneko Azkarate  
Eduardo Mendibil

**Publizitatea:**  
Alex Azkarate

**Harpidetzak:**  
Gorka Elorza

**Testuen zuzenketak:**  
Estepean Plazaola  
Mariji Laskurain  
Alex Labaien

**Erredakzio kontseilua:**  
Miguel Angel Elkoroberezar  
Estepean Plazaola  
Alex Labaien  
Itzi Eranza

**Komikiak:**  
Bitor Rodriguez  
Gorka Ortega & Jon Alvarez  
Jose Martin Ezenarro  
Julian Ezenarro  
Alex Ugaldie  
Unai Azkarate

**Portadako argazkia:**  
Benito Cantero

**Banaketa:**  
Txantxangorri taldea

**Tirada:**  
2.700 ale.

**Inprimategia:**  
Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

**Copyright:**  
BERRIGARA

**Lege gordailua:**  
SS 50/91

**ISSN:**  
1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

## Z E B E R R I D A ?

### LUIS ROS Arkitektoa

**- Zelan doa herri barrua berrizteko plangintza?**

- Momentu honetan bigarren fasean ari gara. Diputazioaren *Hiri guneen berrizketaren* programaren barne, 1992tik aurrera Barrenkaleko 19 etxebizitzetako fatxadak berriztu ziren, jabekideen elkarteek eta Diputazioak emandako dirulaguntzei esker. Orain Barrenkale eta Arruriaga aldera dagoen etxea berrizten dihardugu eta jarraian Arrese etxearekin jarraituko dugu. Tartekoekin oraindik ez dakigu zer egingo den. Arrese izango da konfliktiboena: duen garrantziagatik eta jasan dituen aldakatengatik oraindik ez dugu erabaki zer nolako aktuzioa egin.

**- Noiz arte iraungo**



**dute berrizte lanek?**

- Ez dakigu. Bigarren fase hau datozen hilabeteetan amaituko da eta ondoren ez dakigu laguntza gehiago izango dugun lanean jarraitzeko. Horrela bada, Suradesak jestionatuko ditu dirulaguntzak eta jabekideak lanak egiteko ados badaude, beharrezko berrizte lanak egin ahal izango dira.

**"Herri barrua berrizteko bigarren fasea martxo aldera amaituko da"**

## I T U R R I O N E T I K

### Udal Musika Bandak herriko martxak grabatuko ditu

Udal Musika Bandak herriko martxak grabatuko ditu astebukaera honetan Billabonako IZ grabaketa estudioetan. Alfredo González Chirlaquek zuzenduta, Banda osatzen duten 69 musikariek ondoko martxak grabatuko dituzte: *Campeones* (Bergara K.E.rena), *Umore-Ona*, *Pol-Pol*, *Musika Eskola*, *Pix-Pol*, *Or-Konpon*, *Pertxa*, *Oilagorra*, *Alzasu*, *Lasai-Toki* eta San Martinetako himnoa eta martxa. Irratiek eta herritarrek egiten dituzten eskaerei aurre egiteko asmoz gauzatuko dute grabaketa hau Udalak eta herriko elkarteek. Grabaketa zinta eta *compact-discean* egingo da eta martxorako prest egongo da.

## E S A N D U T E

"Ezinezko hipotesia da Gobernua GALEkin inplikaturaz dagoela esatea, are eta gehiago guztiontzat bistan dagoen gauza bat denean. Garai batean oso urrun zegoen Xhura Gonzálezenganik gero eta hurbilago dago baina ez dut uste GALEn arazoa azkeneraino ikertuko denik"

**JOSE LUIS ELKORO**  
HBko Mahai Nazionaleko kidea  
EL DIARIO VASCO

"Derbya benetan oso ikusgarria gertatu zitzaidan. Zelaia hain beteta egoteak eta zaletuek etengabe animatzeaz futbolearen egiteko indarrak ematen dizkizu. Nahiz eta nere taldekideek derbyaren giroa komentatu zidaten partidu aurretik, giroak erabat harritu ninduen. Asko motibatzen zaitU. Partiduan zehar zarata entzuten nuen baina jokoan guztiz sartuta nengoen. Ezin zaitezke despistatu"

**AGUSTIN ARANZABAL**  
Realeko jokalaria  
EGIN



### LOS PEORES AÑOS DE NUESTRA VIDA

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).



### CON LA POLI EN LOS TALONES

Igandea: 11.30.



### LA TETA Y LA LUNA

Osteguna: 20.00.

## Zinea

▼▼ **Emilio Martínez**  
**Lázaro** zuzendariak (*Amo tu cama rica*) gaurko gazteen inguruko beste komedia bat dakarkigu. **Alberto (Gabino Diego)** eta **Roberto (Jorge Sanz)** emakumeekin zorte ezberdina duten bi anai dira; **Albertori** oso gaizki irtetzen zaizkio gauzak maitemintzen den bakoitzean. **María (Ariadna Gil)** ezagutu eta bere anaia laguntzeko prest azaldu zaio. Baina **Robertok** berriz ere emakumeekin duen arrakasta frogatuko du.

▼▼ Egin ez duen lapurreta bategatik kartzeleratu baino lehen **Jack Hammondek (Charlie Sheen)** ihes egitea lortu du. Kasualdidez bi polizierekin topo egitean rehen bat (**Kristy Swanson**) hartu beharrean aurkituko da eta Kalifornia hegoaldeko errepideetatik zehar amaigabeko persekuzio bat ikusi ahal izango dugu.

▼▼ **Veneziako Zine** Jaialdian aurkeztu zenean, kritika onak jaso zituen **Bigas Lunaren** azken filmak. *Jamon, Jamon* eta *Huevos de oro*ekin batera, espainiar izaerari buruzko trilogia osatzen du. Oraingo hau Kataluinan kokatzen da; mutiko baten ikuspegitik, omenaldi modura, *felliniano* xamarra den mundua aurkezten zaigu.

## Deiak

▼ **Oliver Twist.** Haurrentzako bideo emanaldia larunbatean 11etan Kultur Etxean.

▼ **Eskultura** erakusketa igandera arte Kultur Etxean.

▼ **Gurutze Mujika**ren oleo erakusketa Nahikari tabernan.

▼ **Pol-Polek** gazteei zuzendutako Txindokira irteera igandean. 8 t'erdietan Beheko Estazioan.

▼ **Gurutze Gorriaren** sokorismo ikastaroa Arrasaten astelehetik aurrera. Argibideak 765576 telefono zenbakian.

▼ **Bertso jaialdia** larunbatean 22.30etan Elgoibarreko Herriko Antzokian. Euskitze, Mendizabal eta Iriondo pianojolea.

## Ogia

▼ **Igandea 15:** Bolintxo.

## GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 13:** Estella.
- ▼ **Larunbata 14:** Mozos.
- ▼ **Igandea 15:** Mozos.
- ▼ **Astelehena 16:** Camacho.
- ▼ **Asteartea 17:** Puy.
- ▼ **Asteazkena 18:** Guallar.
- ▼ **Osteguna 19:** Estella.

# ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi ☎ 76 15 09

# IKUSI

BEHERAPENAK!!

ALKANDORAK, JERTSEAK, BAKEROAK... TALLA HAUNDIETAN AUKERA ZABALA

Irizar, 2 ☎ 76 53 09

# Pepelu

Ilepaindegia

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 51 62  
BERGARA

# Sexualitatea eta Osasuna

*Hainbat hitzaldi antolatu dituzte Udalak eta Donostiako Emakumeen Elkarteak datorren asterako*

**Bergarako** Udalak Donostiako Emakume Elkartearen laguntzaz antolatuta, "Sexualitatea eta Osasuna" izenburuko ihardunaldiak izango dira datorren astean Kultur Etxean. Astelehetik asteazkenera bitartean hitzaldi sorta bat iragarri da arratsaldeko 6 t'erdietatik aurrera.

Horrela, astelehenean, Feli Tostón psikologoak "Gure gorputza, konplejok eta autoimagina" aztertuko du; asteartean Kristina Ruiz psikologoa eta Marta Agirre sendagilea izango dira hizlari eta aztertuko den gaia "Anorexia eta bulimia nerbiosoa" eta, azkenik, asteazkenean, "Afektibitatea sexualitatean" gaiari buruz arituko da Feli Tostón.

Udaleko Ongizate Zerbitzuko teknikaria den Arantzazu Loidik adierazi digun bezala, "orainarte ihardunaldi hauek batipat helduei zuzenduta izan badira ere, aurten gazteengana heltzea da gure helburua. Ikastetxe ertainetako ikasleekin berba egin dugu ihardunaldi hauek antolatzeko orduan eta gustatuko litzaiagukeen beren partaidetza lortzea.

*Aurreko urteetan menopausia, bularretako minbizia eta horrelako gaiak aztertu dira eta oraingotan sexualitatea ikuspuntu zabalago batetik planteatu nahi dugu, autoimagina edota afektibitatea bezalako gaiak plazaratuz. Egia da gazteek formazio bat badutela baina ez da guk eman nahi diogun ikuspuntu horretatik zentratzen eta interesgarria dela iruditzen zaigu".*

Herriko beste emakume taldeekin bildu ondoren, ihardunaldien enfokea aldatzea erabaki zen. Arantzazu Loidiren hitzetan, "aurreko edizioetan oso erantzun ona jaso izan dugu, batz bestea 100 bat emakume bilduz. Ea antzerako erantzuna lortzen dugun aurten. Denen den, argi laga behar da ez dela gazteentzat ba-



Sexualitatea ikuspegi zabal batetik aztertuko da ihardunaldietan.

*karrik; mutil, gizonezko eta emakume gazteei murriztea nahi eta gizonezkoak eta emakume helduak ere etortzen badira askoz hobe. Azken batean, guztiongan eragina duten*

*gaiak baitira".*

Horra hor ihardunaldi hauetan parte hartzeko luzatutako gonbidapena. Esan bezala, hitzaldi guztiak arratsaldeko 6 t'erdietan izango dira.



**POL-POL**

TABERNA

☎ 76 07 78

**DEPORTIVO**

TABERNA

☎ 76 01 51

**MAHER**

Biltegiak L.E.

Oihal etxea

Bidekurutzeta, 29

☎ 76 22 90 - 76 26 75

**LXUKUN**

**BEREZITASUNAK**

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 51 62

BERGARA

**Gauzak argitu nahian**

Antza denez beste iturri bat kendu nahi dihute.

Eusko Jaurlaritzak 1992ko ekainean egindako Lanbide Heziketarako institutu berriaren plano batzuen arabera, lehen-go batxilergo institutuaren eta LHrako berri honen artean "zorbide" bat dago.

Zorbide hori betidanik erabili izan du-gu auzotarrok udan etxeetan ura falta zaigunean.

Orain Udaletxeko norbaitek esan du ez dagoela halako biderik, Eusko Jaurlaritzak berak jatorrizko olanoetan aitortu-tako eskubideak bortxatuz.

Zergatik aldaketa hauek?

Gure iturrixa zain dezagun.

Espekulaziorik ez!!

**AUZOKIDE TALDE BAT  
NAN: 15.363.106**

**Eskerrik asko guztiei**

Bergarako Amnistiaren Aldeko Komiteak eta Senideak-ek eskerrak eman nahi dizkie Gabon festa hauetan beraien laguntza eman diguten dendari, tabernari eta abarrei.

Zuen laguntza ezinbestekoa da preso, errefuxiatu eta deportatuengana iristeko ezartzen dizkiguten oztopoak gainditzeko eta beraiek sufritzen duten egoera jasanezina arinagoa izateko.


**BERGARAKO AMNISTIAREN  
ALDEKO KOMITEA  
SENIDEAK**

**Zuzenketa**

BERRIGARAko aurreko alean, San Martin Osasundegiaren iragarkian akats bat agertu zen. Obstetrizia eta Ginekologia Unitatearen sailean, Otazua Dokto-rearen orde, Serrano Doktoorea jarri behar genuen. Barkamenak eskatu nahi dizkie-gu San Martin Osasundegikoei huts ho-nengatik.

**Tiira biraka**

**J.M EZENARRO**



◆ **Amodiozko gutunak**

JARDUN Elkartek antolatutako Amodiozko gutunen III. Berrigara Lehiaketarako lanak entregatzeko epea urtarrilaren 26an amaituko da. Lanak DIN A-4 orrialdetan eskuz zein makinaz idatzi daitezke eta luzera bi orrialde baino gutxiagokoa izango da. Sariak honako hauek izango dira: 75.000 pezeta irabazlearentzat, 40.000 bigarrenarentzat eta 25.000 bergarar onenarentzat. Sari ematea otsailaren 14an egingo da Kartzela Zaharrean.

◆ **Salatxo abesbatza**

Orioko Salatxo abesbatzaren emanaldia izango da bihar larunbata 8etan Santa Marinaran.

**JAIOTAKOAK**

**Asier Laria Caballero**

Abenduak 30

**Alvaro Fernández Tejada**

Abenduak 30

**Unai Garmendia Markiegi**

Abenduak 31

**HILDAKOAK**

**Bonifacio Azkarate Gallastegi**

Urtarrilak 1, 78 urte

**Petra Martin Moreta**

Urtarrilak 9, 83 urte

**Celia Zabaljauregi Mondragon**

Urtarrilak 10, 75 urte

# Etxean da Ruandaren aldeko elkartasuneko espedizioa

*European iritsi zen Bergarara asteazkenean*

**Herritar ugari** izan ziren asteazkenean, Ruandaren alde, txakurrez tiraturiko trizikloekin Euskadiko Itzulia egin duten espediziokideei ongi etorria ematen. Axen Garitano bergararra eta bere lagunak arratsaldeko 6ak aldera iritsi ziren San Martin plazara, euripean eta jendetzaren txalo artean.

Burututako abenturagatik zorionak eman zizkien alkateak eta Patxi Maestrok, espediziokide guztien izenean, eskerrak eman zizkion Bergarako herriari eta azken hilabete honetan ezinbesteko laguntza eman duten erakunde eta bizilagun guztiei. Abenduaren 11tik urtarrilaren 11ra bitartean 1.000 Km. inguru bete dituzte Hego Euskal Herri osoan zehar. 30 bat herritan parada egin dute eta herri txikietan haundietan baino harrera hobea izan dutela adierazi dute espediziokideek.

Hilabete luze honetan 4 milioi pezeta inguru bildu dituzte Ruandaren alde. Hasiera batean 10 milioi inguru batzeko asmoa zuten baina hainbat tokitan, beharbada, informazio falta egon da.

Abentura honetan parte hartu duten guztiak neka-



Jende ugari bildu zen San Martin plazan egindako ongi-etorrian.

turik baina pozik heldu ziren Bergarara. Anekdotak ugari bizi izan dituzte Araba, Bizkaia, Nafarroa eta Gipuzkoako lurraldeetan. Nafarroan elurra izan zuten, Donostian afaria ematea ahaztu zitzaion bertako Udalarari eta tabernari batek gonbidatu behar izan zituen, Erreterian Errege kabalgatan parte hartu zuten..., eta horrela ehundaka.

Guztiak positibotzat jo zuten helburu altruista batekin egindako espedizioa. Axen Garitanoren hitzetan, "esperientzia benetan oso aberasgarria izan da. Nik neuk ere berriro egingo nuke baina jendearen aldetik jasotako erantzuna-

*rekin ez naiz oso pozik geratu. Leku batzutan primeran hartu gaituzte baina bestetan ez dugu harrera onik izan. Beharbada beste era batera antolatu behar zen, ez dakit, ikastetxeekin edo herriaren haundiagoa izanez; baina normala da gauza bat antolatzen den lehenaldizikoa aldian hutsak egitea". Erabilitako siberian husky txakurrek osasun arazoak izan zituzten amaieran baina Axenek esan bezala, "oso ondo portatu dira". Kontuak kontu, zorionez, abenduaren 11n ateratu zen espedizioak amaiera zoriontsu bat izan zuen asteazkenean gure herrian.*

**AGIRREBEÑA**

**oinetakoak  
arropa denda  
lenzeria**

Urteaga, 5 ☎ 76 18 29



**A  
R  
R  
A  
N  
O**



**Taberna**

Kruz Gallastegi BERGARA

◆ **Igerilekuak itxita larunbat arratsaldean**

Igerilekuak itxi egingo dira larunbatean 14.30etatik aurrera bertan jokatu den igeri txapelketa dela eta. Bestalde, igerilekuetako iazko karneta igandera arte bakarrik izango da baliogarria. Astelehenetik aurrera 1995ko karneta eskatuko da pizinetara sartu ahal izateko.

◆ **Lokatzako zozketa**

Mendiko bizikletaren zozketan 11.853 zenbakia izan da saritua. Hilabeteko epean sariduna agertuko ez balitz, ordezeko zenbakia 6.980a izango litzateke.

◆ **Gabon saski bat**

7. D mailako ikasleek ikasbidaiaren alde antolatutako zozketan 239 zenbakia izan da irabazlea. Boletorearen jabeak gabon-saski bat eskuratuko du. Saria astelehenean 5etan jaso ahal izango da Kultur Etxean.

◆ **Xamatzen X. urteurrena**

Xamatzek bere X. urteurrena ospatzeko maiatzean egingo duen jaialdirako lehen entsaiua bihar larunbata egingo da, 15.30etan Poligonoko Ikastolako gimnasioan. Taldeko partaide izan diren guztiei bertara joateko dei egiten zaie.

◆ **Jarrairen manifestazioa**

Aurreko ostegunean Jarraik Ertzaintzaren aurka deitutako manifestazioa egin zen Bergaran. Jende dexente bildu zen bertan eta ez zen inolako istilurik gertatu.



Otsailaren amaieran ospatuko dira aurtengo Karnabalak.

## Jai Batzordeak Aratuztetako kartel lehiaketa konbokatatu du

*Lanak entregatzeko epea urtarrilaren 23an amaituko da*

Udaleko Jai Batzordeak Aratuztetako programaren azalerako kartel lehiaketa antolatu du. Aipatutako lehiaketa honetan herriko edozein lagunek har dezake parte eta betebeharreko baldintzak honako hauek izango dira: kartel bakoitzaren neurria 50 x 35 cm.koa izango da, kolore eta teknika librean erabili ahal izango dira eta derrigorrezko testua "Bergarako Aratuzteak. 1995" izango da.

Lanak aurkezteko epea urtarrilaren 23an amaituko da eta hauek Kultur Etxean jasoko dira. Kartelen atzekaldean ezizen bat jarri behar da eta sobre itxi baten barruan ezizena bera eta egilearen datuak. Irabazleak 50.000 pezetako saria jasoko du eta, hala ere behar den kalitatea daukan lanik ez balego,

saria eman gabe gelditu daiteke. Lehiaketako epaimahaia Jai Batzordeak izendatuko du eta bereziki karteletako jai giroa hartuko da kontutan. Saritutako kartela Udalaren esku geratuko da eta kaleratzeko eskubidea izango du. Era berean, Udalak erakusketa egin ahal izango du aurkeztutako karteletan. Interesatuak Kultur Etxean jaso dezakete lehiaketari buruzko argibide gehiago.

Aurreko edizioetan Dani Lascurain (1992), Aloña Altuna (1993) eta Mainer Muñoz (1994) izan dira lehiaketako irabazleak.

Aurtengo Karnabalak otsailaren bukaeran ospatuko dira. Otsailaren 25ean Karnabal zapatua izango da eta otsailaren 28an Karnabal martitzena.

**Zure konfidantzako denda**



Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

**ARRASATE**





Emakumeek eskulan ikastaroarekin jarraitu ahal izango dute datorren astetik aurrera.

## Udalak antolatutako eskulan ikastaroa berriz ere martxan

*Azaroan suspenditu zen ikastaroan 100 bat emakume dira*

Udaleko Ongizate Zerbitzuak antolatutako eskulan ikastaroko klaseak berriz ere martxan jarriko dira datorren astetik aurrera. Gogoratu dezagun klaseak eten egin zirela azaroaren azkenetan, kontratatutako monitoreek baldintza pleguetan jasotzen zen beharrezko euskara mailarik ez zutelako.

Monitoreei klaseak euskaraz eman ahal izateko laguntzaile bat aurkezteko aukera ematen zitzairen baina bietako batek ez zuen laguntzaile aurkeztu eta beraz zerbitzua berriz lehiaketara ateratzea erabaki zen.

Egoera ikusita, Udaleko Gobernu Batzardeak bigarren deialdi honetarako euskararen baldintza kentzea erabaki zuen eta bost emakume aurkeztu ziren.

Aipatutako bost emakumeek aurkeztutako dokumentazioa kontutuan izanik Enplegu eta Gizarte Zerbitzuak Dorleta Mendibil eta Izaskun Murgizu kontratatzea proposatu zuen eta Gobernu Batzardeak aho batez onartu zuen proposamen hori. Azkenean Izaskun Murgizuk, lanpostuari uko egin dio eta beraz Leioako Fakultatean Arte Ederretan lizentziatua den Dorleta Mendibil bergararra izango da ikastaroaz arduratuko dena.

Guztira, 100 emakume inguru dira ikastaro honetan eta ikasleak bost taldetan banatuko dira. Talde bakoitza 20 lagun inguruz osatuko da eta klaseak Kultur Etxean izango dira, egunero arratsaldeko 4retatik 6etara. Esan bezala, klaseak ziurrenik datorren astean hasiko dira.

### ◆ Batzokiko zozketa

Bergarako Batzokiko Gabonetako zozketan 6.701 zerbakia mendiko bizikleta batekin eta 10.510 zerbakia Gabonetako saski batekin sarituak izan dira.

### ◆ Jubilatuen irteera

Jubilatuek datorren ostiralean, hilak 20, Donostiako Tanborrada ikustera joateko eskurtsio bat antolatu dute. Irteera goizeko 9.30etan autobus geltokitik egingo da, bazkaria 14.30etan Aitzkorri jatetxean eta 7etan Bergarara itzulera. Prezioa 2.100 pezetakoa da eta plaza mugatuak dira. Izen-ematea Jubilatuetan.

### ◆ Goxogintza ikastaroa

Jardunek goxogintza ikastaroa antolatu du urtarrilaren 25etik martxoaren 1era bitartean. Josemi Sagastumeren eskutik, asteazkenetan, 4retatik 6etara, San Blas opilak, peilak, euskal pastela edota hojaldrearen sekretuak ikasteko aukera izango da. Bazkideentzat 2.000 pta. eta gainontzekoentzat 2.500 pezeta. Izen-ematea urtarrilaren 23ra arte.

### ◆ AEKko zozketa

AEKko zozketan 54.656 zerbakia izan da saritua. Irabazleak urtean zehar, hilero, 150.000 pezetako soldata jasoko du. Sariduna Donosti aldean agertu omen da.

### ◆ Orkestaren kontzertua

Bergarako Orkestra Sinfonikoak kontzertua emango du bihar 8etan Azpeitiako Zelaixto antzokian. Besteak beste, Gluck, Tchaikowsky, Falla, Williams edota Alfredo Glez. Chirlaqueren lanak eskeiniko ditu.

**HAU DA ZURE LAN AUKERA!!!**

**Etxeko langileak, mekanikoak, kamareroak, administrariak..., 185 ofiziotaraino**

**"LAN BILA"**

**LANA AURKITUKO DIZUGU. ETA, BESTALDE, ZURE NEGOZIO PROPIOA JARRI NAHI BADUZU, INFORMATU ETA LAGUNDUKO DIZUGU**

Irala kalea, z/g • BERGARA • Tfnoa: 76 33 72 - Faxa: 76 57 85

## Arantxa Iturberen ipuinari amaiera kendu eta lau bukaera desberdin jarri dizkiogu...

### ASMATUTAKO EZER EZ DA BERRIA

— Ba... bai, baina jakingo dun ba epaimahaiko bat apeza dela! Ipuin honek ez din sekula santan saririk jasoko, neska! Nola nahi dun hemezortzi urtetako neska prostituta batekin eta honen semearekin Bahametara bidaia saritzea!

Berak ez zekien ordea tartean apez bat zegoenik! Jakin izatera... Eta berriro hogeitaz hamar folioak hartu, hasierakoak zeudenean utzi eta bigarren zatia birmoldatzeari ekin zion. Apezak ez zuen prostitutarik ezagutu. Jostun bat ezagutu zuen bigarren saiakeran, zintzoa bera, eta mixiotara joateko desiatzen zegoena baina aita gaixorik zeukan azkeneko hamar urteetan eta hura zaintzeagatik bokazioari uko egin eta gau eta egun lanean igarotzen zituen emakumeak sendagaiak erosteko adina diru lortzeko. Apezak, erabat hunkituta, haren tokian mixiolari joatea erabaki zuen.

Ez zitzaion bukaera gustatu, eta hura ere hautsi egin zuen. Onena, bada ez bada ere, apezik tartean ez izatea zela erabaki eta protagonista mediku bilakatu zuen. Gainera, aldaketa hark ez zizkion gauzak gehiegi aldatzen. Azken finean, bidea aukeratzeko orduan buruhauste berberak izan zitzaizkion apezak eta medikuak eta horixe zen ipuinaren hasieran kontatzen zena. Bere ideia nagusia, ezinezkoa zirudien amodio batengatik bizimodu jakin eta zehatz bat uzten zuen gizonaren ixtorioa kontatzea zen. Baina medikuak ez zeukan bere lana zertan utzi beharrik neska batekin maitemintzeagatik! Baldin eta neska, minbiziak jo eta hiru hilabetetako bizia geratzen zitzaiona ez bazen. Orduan bai. Lana utzi beharke zuen, egunak dituen minutu guztiak bere ondoan egozteagatik. Baina behin neska hil eta gero? Ez zuen medikuak konbenzitzen. Apeza behar zuen izan.

Baina nola?, epaimahaikide bat apeza bazen?

Xuabe-xuabe egingo zuen planteamendua. Ez zuen bokazioaren gaia zela eta hainbeste gorabeherarik izango. Hamar urtetarako sartuko zuten seminarioan eta orduan, bizitza zer den hausnartzu denborarik izan ez duen gizaseme zintzo eta arrunt moduan agertuko zen. Bapatean ordea, ezustean, neska on eta azkar bat ezagutu eta maitemindu egingo zen.

Ez zuen inolako gantxorik. Askoren historia zen hura, baina kaskezurrean sartuta zeukanez, idatzi egingo zuen eta kitto. Eta lehiaketara bidali, zer demontre gero! Esan dezala apezak nahi duena!, pentsatu zuen bere baitan.

Hilabete luzea joan zitzaion ipuina berridazten.

"Azkeneko aldiz begiratu zion ohe gaineko egurrezko gurutze zahar hautsdunari. Ohituraz, beste ezer baino gehiago. Ez baitzuen eguna sekula hasten, Kristoren begirada samin hari hogeitalau ordutako ekintzak kristau zintzo, leial eta eskuzabal bezala betetzeko eskaria egin gabe. Egund hartan ordea, begirada hura ez zitzaion hain mingarria iruditu eta gainera, zorotzat hartuko zutela jakin izan ez balu, Kristok berak keinu maltzur bat egin ziola kontatuko zukeen lagun artean. Gelako atea itxi aurretik horixe ikusi baitzuen.

Larruzko maleta txikia, ordurarte meza liburuak eta errosarioa batetik bestera eramateko erabili ohi zuena, eskuineko eskuz sendo eutsi eta apezetxea atzean utzi zuen bizitza berri bati ekin asmoz".

—Eta? —galdetu zion Mireni, azkeneko orrialdea beharaino iritsi zela ikusi zuenean.

—Hi burutik jota hago! —honek, paperak oraindik esku artean.

—Ez al zain gustatu?

Arantxa Iturbe.

## 1. bukaera

Liburua berridazten amaitu zuenean.

Kitto, korreosera noa, lehiaketako helbidea jarri eta agur!

Egunak joan eta egunak etorri, etxeko txirrina entzuten da.

Txirrin, txirrin

– Bai, nor da? – esan zuen.

– Aizu, ni naiz, Miren. Bidali al zenuen idatzitako lana?

– Bai bidali nian eta emaitzaren zain ninak.

– Beno, ba egongo gaitun, agur.

Hurrengo egunean lehiaketako gutuna heldu zenean nerbioekin justu justu ireki eta irakurtzen hasi zen lehiaketa irabazi zuela ikustean bere poza izugarrikoa zen. Gutunak beste orri bat zuen, epaimahai-ko epai batena zen, liburua saldu nahi al zuen galde-tzen eta egiten bazuen ospe handia irabaziko zuela esanez.

Hori ikusita, saltzen eta kopia gehiago ateratzen hasi zen. Liburuak txurro modura saldu ziren eta bere ospea haunditu eta azkenean munduko idazle onenatariko bat bihurtuko zen.

## 2. bukaera

Astebete pasa ondoren, asko kostatako liburua argitaratzea erabaki zuen. Liburua, apaizari buruzkoa zen. Berak pentsatzen zuen liburuak fama handia hartuko zuela baina ez zen izan horrela. Apaizari buruz astakeria ugari jarri baitzituen. Apaizak liburua erosi zuen, irakurtzean harrিতa gelditu zen eta denuntzia bat jartzea erabaki zuen.

Juizioa apaizak irabazi zuen eta honen ondorioz neska oso gaizki gelditu zen jendearen aurrean.

**Zein da lau aukera hauetatik gustokoen duzuna? Ze bukaera jarriko zenioke zuk?**

## 3. bukaera

Hilabete luzea joan zitzaion ipuina berridazten, asko kostata ere aurrera eraman zuten euren ekintza "Bahametara heldu eta lo egiteko leku bat bilatzen hasi ziren. Euren kultura eta bizimodua ikusi zutenean hurrengo egunean laguntza ematea pentsatu zuten. Bahamako herri hori oso pobrea zenez, ondo iruditzen zitzaien laguntzea.

Kalean zehar ikusi zituzten jende behartsua bildu eta lagun guztiei esker jende hauendako etxe handi bat egitea proposatu eta martxan jarri zuten.

Alde batetik eta bestetik lortutako diruarekin material batzuk erostea lortu zuten. Ekintza hauek bukatu eta gero medikua gaixorik zeuden pertsona guztiei lagundu eta apaiza denen laguntzaz etxe hori GURE ETXEA bedeinkatu zuen. Azkenik apaiza eta medikua itzuli egin ziren euren herrira".

– Bukatu dut! Horrelaxe bidaliko dut ipuin lehiaketara.

## 4. bukaera

Hilabete luzea joan zitzaion ipuina berridazten baina berridazten ziharduen bitartean berari geratzen ari zitzaizkion gauzak idazten zituen.

Azkenik sikopata burugutxiko bat protagonista bezala jarri zuen, gero sikopata ezkondu egin zen emakumearekin. Egun batez gau ilun batean sikopata burugutxikoa etxe bateko atea ireki eta barnera sartu zen, bertan zeuden eskilarak igotzen ari zela poliki-poliki eskailearen hotsak entzunez. Goiko solairuan gizon bat zegoen ipuin bat idazten, horrelako batean ke usaina hartu zuen eta konturatu orduko beheko solairua sutan zegoen eta orduan leihotik salto egitea pentsatu zuen.

Korrikaldi bat egin eta gero, idazleak buelta eman eta etxea eta ipuina erre egin zirela ikusi zuen. Azkenean ez zuen lehiaketarako besterik idatzi eta ordudanik ez du liburu gehiago idatzi.

## 2. REM C taldeak

## Bergarako artistek badute elkartea


**"Beart" izena du**

**Bergarako artistek badute dagoneko euren elkartea, Beart alegia. Bertan pintore, eskultore eta artea gustatzen zaion edonork har dezake parte. Elkartearen arduradunak izendatu dituzte eta egun hauetan asanblada orokorra egingo da Bearten etorkizuna zehazteko.**

**L**uis Laskurain izendatu dute Bearteko presidente eta berak adierazi digunez, lehendik datoz elkartea sortzeko ahaleginak gure herrian. "1.970eko hamarkadan berdura merkatuan zebiltzan pintore batzuk saiatu ziren elkarte bat sortzen, baina ez zuten aurrera egin eta hortik aurrera bakoitza bere aldetik ibili da. Duela bi urte, Ortonovoko pintoreekin egindako trukearen ondorioz hasi ginen berriz ere elkarte bat sortzeko ahaleginean, baina bark ere ez zuen irten aurrera. Gero Kultur Ekintza desager-

tzean ekintza asko airean gelditu ziren eta Udaletik deitu ziguten zer pasatzen zen ekintza horiekin. Udalarekin bilera bat egin genuen eta ekintza horiek aurrera eramateko elkartea sortzea beharrezkoa zela ikusi genuen" adierazi digu Luis Laskurainek.

Hasiera baten 10 pintore elkartu ziren elkartearen estatutuak egiteko eta karguak izendatzeko. Hortik irten dira Luis Laskurain presidente, Bingen de Pedro presidente orde, Dani Laskurain diruzain eta Josuren Murgizu idazkari. Halere urtarrelean zehar asanblada



Luis Laskurain, Bergarako artisten elkarteko presidentea.

orokorra antolatzeke asmoa dute.

**Hiru fase ezberdin**

Beartek eraturako proiektuak hiru fase ezberdin ditu. Lehen fasearen helbururik nagusia orain arte egin diren

ekintzak mantentzea edota hobetzea izango litzateke. "Orain arte beti izan dira ikastaroak, baina ez zuten oinarri finkorik. Hasten ziren baina ez zekiten noraino helduko ziren. Orain gauzak egituratzeko asmoa dugu, iraupen eta



**MANU MUNIATEGIANDIAKOETXEA**  
PINTOREA

"Oso ondo ikusten dut elkartea sortzea, beharrezko baitzen. Orain arte pintore guztiak bakoitza bere aldetik ibili gara eta elkarte honekin guztion indarrak batuko dira. Horrekin


**"Artista gazteentzat egokia izan daiteke batez ere"**

gauza hobeak lortuko direla espero dut. Gainera Bergaran arte munduan mugitzen garenok asko gara eta oraindik ere gauza asko dago egiteko.

Batez ere artista gazteentzat egokia ikusten dut, euren maila hobetzeko elkartearen laguntza izango baitute. Bergaratik kanpo asko egoten naizen arren, elkarteari ahal dudana gauzetan lagunduko diot".

**"Artisten lanaren koordinaketa eraman beharko luke"**

"Nik uste dut elkartea lan egiteko gogoarekin jaiotzen bada interesgarria izan daitekeela. Elkarteak beste gauza batzuren artean erakusketak egiterako orduan kriterioak batu beharko litzuke eta herriko artista ezberdinen lanaren koordinaketa eraman beharko luke. Ikastaro espezializatuak antolatu beharko ditu eta halaber elkarteko kideek ere klaseak



**XABIER DIAZ DE ZERIO**  
ESKULTOREA

emango litzukete.

Kolektibo bezala instituzioekiko harremanak ere hobetu ditzazkegu, bide hori zaintzea oso inportantea da. Bai, Oso positiboa izan daiteke...



**RUFINA OLASAGASTI**  
UDALEKO KULTUR JESTOREA

"Askotan entzun izan diet herriko artistei elkarte sortu beharra zutela komentatzen. Beraz, pozgarria da pintore eta artistek aspalditik zekarten ideia gorpuztuta ikustea *Beart* el-


**"Udala saiatuko da azpiegiturako premiei erantzuten"**

kartearekin. Gogotik ekin diotela dirudi elkarte berria sortzeko lanei eta eragin onik izango du Bergaran arte arloan.

Udalaren aldetik, eta guk egin dezakegunaren heinean, saiatuko gara elkarte berriaren azpiegiturako premiei erantzuten, alde horretatik ez da bate- re arazorik izango".

**"Pintoreentzat ezezik artista guztientzat interesgarria"**

"Elkatea herriko artisten indarrak batzeko interesgarria da. Hasieran pintoreak pentsatu genuen elkatea egitea, baina edonorentzat dago zabaldua. Elkartearen bidez instituzio- ekiko harremanak ere bidera daitezke. Orain asanblada orokorra egingo dugu eta bertan ikusiko da ze asmo duen jendeak. Eibarren ere badago horrelako elkarte bat, lehen bada-



**ABDON JUARISTI**  
PINTOREA

kit funtzionatzen zuela baina orain ez dakit zer egiten duen. Elkartean sartzen denak aukera izango du gustokoak dituen aktibitateak aurrera eramateko".

*jarraikortasun gehiago emateko. Bestalde erakusketak bultzatzea, lehiaketak antolatzea, museotara bisitak, hitzaldiak, bideo emanaldiak, etab antolatzeko asmoa dugu"* dio Laskurainek.

Bigarren fasean *Beartek* ikastaro espezializatuagoak antolatzeko asmoa du. Horretarako arte ederretako irakasle- en eta pintore adituen laguntza espero dute. Halaber museo garrantzitsuetara bisitak edo elkartruke kulturalak egiteko aukera ikusten dute. Hirugarren fasean eta epe luzeagora begiratzuz gune kultural bat sortzeko asmoa dute. *"Arteleku antzerako bat sortzeko asmoa dugu epe luzera. Bertan espazio bat aula ezberdinetan banatuko genuke eta artistek aula horiek proiektu konkretu bat egiteko eskatu ahal izango lituzkete. Proiektuak irauten duen bitartean aulak eurentzako izango lirатеke, eta proiektua amaitutakoan aulak beste batzuentzat izango lirатеke. Gainera, elkartearen laguntza izango dute"* adierazi digu Laskurainek.

**Arte eskola Bergaran**

Hiru faseak bete ondoren, *Beartekoen* hurrengo pausua Bergara mailan arte eskola ez arautu bat sortzeko proiektua dute. *"Pertsona asko arte ederretako eskolatik kanpo gelditzen da eta horiek artea ikasteko aukera izan dezakete eskola honetan. Proiektu hau luzerako aurrikusten dugu, halerе interesgarria izan*

*daiteke Bergararentzat"* esan digu Laskurainek.

Orain arte adierazitako asmoak aurrera eramateko beharrezkoa da azpiegitura egokia eta hori lortzeko lokalen premia dute. *"Azpiegitura aldetik lokalen beha-*

*rra dugu eta hori lortzeko Udalarekin harremanetan gaude. Oraindik ez dugu lokal konkreturik eta behin behinekoa bada ere, Errotalde kultur etxean dugu egoitza"* adierazi digu *Bearteko* presidenteak.

**"Donostiako Arteleku antzeko bat sortu nahi dugu epe luzera"**



Bergarako pintore talde bat, joan zen Gabonetan egin zen erakusketa kolektiboaren aurkezpenean.

## Kontsumoa

# Beherapenak

- **Noiztik dago beherapenak egiteko ohitura?**

- 1852an Frantzian sortu ziren beherapenak; dendari batek salmentak gehitzeko modu ona zela pentsatu zuen eta "Aste zuria" asmatu zuen. Astebetez produktuak merkeago saldu zituen eta esperientzia haren arrakasta ikusirik, urtero egitea erabaki zuen. Estatura, berriz, 1924an heldu ziren, Galerías Preciados-eko kubatar sortzailetariko batek ekarrita.


- **Zergatik egiten dira epoka honetan?**

- Bueno, 1994ko Ihar-duera Komertzialeko Legeak ez du esaten noiz egin behar diren. Legeak urtean gehienez bi aldiz eta 4 hilabateko iraupenarekin (normalean gutxiago izaten da) egin behar direla dio eta normalean udan eta neguan egiten dira. Arrazoi nagusia sobran diren produktuak ateratzeko eta dirua lortzeko modu azkarra dela litzateke. Bestela produktu horiek modaz pasata geratuko lirateke. Bestalde, legea-

ren arabera ezin dira produktu bereziak beherapenetan jarri (beherapenak hasi baino hilabete lehenago salgai egon behar dira) eta beherapenetan dauden produktuak besteengandik bereiztu egin behar dira.

- **Gero eta arrakastatsuagoak gertatzen dira...**

- Bai, jendeak gero eta



**IÑAKI ETXEBERRIA**  
(Eroskiko Kontsumo Teknikaria)

gehiago erosten du beherapenetan. Jendeak badaki produktu onak aurki ditzakeela eta dirua orain gastatzeko gordetzen du, joera beherapenetan erostekoa da.

- **Zein diferentzia**

**dago beherapen, saldo eta likidazioen artean?**

- Beherapenetan produktu berdina prezio bazuagoan saltzen da; saldoak modaz pasatutako edota egoera oso onean ez diren produktuak saltzeko lirateke eta, azkenik, likidazioak negozioa itxi edota lokalez aldatzerakoan aurki ditzakegun ofertak.


- **Zer exijitu dezake te erosleek beherapenetan?**

- Lehenago eta oraingo prezioa (batz besteko diferentzia % 35ekoa da), rebajak noiz hasi eta bukatzen diren jakin behar dugu, ea lokalak kreditu txartelak onartzen dituen, produktuen konponketa kobratzen bada aurretik esan behar digute eta, nahiz eta beherapenetan egon, produktua txarto badago, komertzioek deboluzioak jaso beharra daukate.

- **Erosleentzat gomendiorik?**

- Produktuaren kalitatea konprobatu, erosterako orduan ideia bat aurrez izan, beharrezkoa dena bakarrik erosi, etiketak ondo aztertu, fakturak gorde, deboluzioak onartzen dituzten jakin, egoki identifikatu gabeko produktuak ez hartu, tarjeten ordez dirua erabili eta, arazoren bat sortzen bada, kontsumo elkarteren batera jo.

**"Etiketak ondo aztertu, fakturak gorde eta deboluzioak onartzen dituzten ala ez jakitea komeni da"**



Sasoi honetan, beherapenak direla eta, zoratu egiten gara erabat.

**ARDATZA**  
*Brikolaketa*

Masterreka, 4 behea ☎ 76 18 93

- Ateak eta zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailek eta manilak
- Koadroen enmarkazioak
- Era guztietako moldurak
  - Apalak
  - Kajoiak

**ONENA**  
**TINTATEGIA**

Barrenkale, 29 BERGARA



BENITO CANTERO

# **KIROL** *sariak* 94

Udak Kirol Zerbitzuak eta Berrigarak herriko kirolari eta kirol elkarteek 1994. urtean zehar egin duten lana aitortu eta saritu asmoz, Kirol Sariak 94 sariketa konbokatu dute.

Hiru sari banatuko dira:

**1. Kirolaririk onena.**

Aste honetan eta hurrengoan orrialde hauetan aurkeztuko dizkizuegun kirolarien artean irakurleen botoek aukeratuko dute. Saria, 50.000 pzta. kirol materialean izango da.

**2. Kirol elkarterik onena.**

Herriko berriemaleek aukeratuko dute. Saria, 50.000 pzta. kirol materialean.

**3. Urtetan kirol munduan egin duen lanagatik nabarmendu den pertsona.**

Herriko kirol elkarteetako eta Udal Kirol Zerbitzuko ordezkariak osatutako komisiorek aukeratuko du. Saria, trofeo oroigarri bat izango da.


Beraz, herriko kirolaririk onena zuen, irakurle onen, botoek erabakiko dute.

Aste honetan eta hurrengoan hautagaien argazki eta fitxa teknikoak argitaratuko ditugu orrialde hauetan eta datorren astean txartel batzuk banatuko ditugu zuek aukeraketa egin dezazuen.

Jasotzen diren txartelen artean, afari bat bi lagunentzako eta Kirol Zerbitzuko karneta urte osorako zozketatuko ditugu.

Txartelak bidaltzeko azken eguna hil honen 31 izango da. Anima zaitetz, zeuk duzu azken hitza eta!!

Sariak, otsailaren 2an, osteguna, banatuko dira Kultur Etxean arratsaldeko 6.30-etan.




**Asier GARITANO**

25 urteko futbolari bergararrak, gazte-gaztetatik ekin zion Lezamako zelaletan jokatzeari. Athletic-eko zelaletan jokatzeari. Gazte mailetan aritu ondoren, Bilbao Athletic-en ibili zen 2. mailan eta handik Eibarrera joan zen. Iaz Cartagenan jokatu zuen 2.B mailan eta aurten Cadizek fitxatu zuen. Andaluziarren golegilea da.

**Idoia MORENO**

23 urte ditu eta bost urte daramatza aerobic-a egiten. Orain dela zortzi urte karatea egiten hasi zen, baina gaur egun aerobic monitorea da Bergarako gimnasio batean. Iaz, Siches-en jokatu zen Espainiako aerobic txapelketan. Euskadiko selekzioarekin izan zen. Beste bost lagunekin batera bigarren postua lortu zuen.



**Jokin ETXANIZ**

20 urte zituenean debutatu zuen profesional mailan eta harrezkero pelotaren goreneko mailan ari da. Sari ugari eskuratu zituen gazte mailetan eta profesionaletan binakako txapelketa lortu zuen 93an Zezeagarekin. Iaz lesio ugari izan zituen arren, une honetan gogor ari da binakakoan Galarzarekin batera. 24 urte ditu.



**Pablo IRIZAR**

33 urte ditu eta 1988. urteaz geroztik auto karreretan buru-belarri. 1990.ean AX kopako Espainiako txapelketa izan genuen eta 1992an, berriz, Renault Clio Kopako Espainiako txapelketa lortu zuen. Aurten, ZX Kopan aritu da eta bere asmoa superturismotan ibiltzea bada ere ZX Kopan korrituko du datorren denboraldian.




**Martin ARRIARAN**

30 urte ditu eta 14 urte zituenetik xakean jokatzen ari da. Gaur egun Bergarako xakelaririk onena dugu. 1991. urtean Espainiako txapelketa jokatu zuen eta 92 eta 94an, Euskadikoa. Estatu mailako xake rankinean sartzea lortu duen bergarar bakarra da eta une honetan nazioarteko rankinean sartzeko gogor entrenatzen ari da.

**Iñigo IGARTUA**

Ziklo-krossean punta-puntan dabilen 25 urteko bergararrak Afizionatu mailako Espainiako Txapelketa lortu zuen 1992. urtean. Iaz, berriz, Euskadiko Txapeldun izan genuen Open kategorian. Aurten Euskadiko txapeldun orde izan da eta hirugarren postuan sailkatu da Espainiako Txapelketan Open kategorian.



**Joseba OREGI**

25 urteko bergararra Oregitarren anai gazteena da. Aurtengo udan debutatu zuen profesionaletan Mutrikuko frontoian eta Bergarako Udal Pelotalekuan ere jokatu du partidu pare bat. Afizionatuetan, Deba Arroko eta Gipuzkoako txapelketak irabazi zituen infantil mailan. 1991.ean 3. postua lortu zuen Gipuzkoako Txapelketan

**Martin EGAÑA**

29 urteko kotxe gidari bergararrak 22 urte zituenean ekin zion karreretan korritzeari. Lehenengo hiru urteak Renault Kopan aritu ondoren, azkenengo lau urteetan AX Kopa jokatu du. Aurten 3. postua lortu du Espainiako Txapelketan, bigarrenetik oso getu geratu den arren. 1991an ere 3. postua lortu zuen AX Kopan.









**Aitor ZABALETA**

Mendiko kotxe karreretako Estatuko gidaririk onenatarikoa, 1988an ekin zion horrelako probetan korritzeari. 1988an 5. sailkatu zen Espainiako Txapelketan 89an, berriz, 3. eta 90, 91, 92 eta 93an, azkenik, txapeldun orde. Euskadiko txapelduna dugu, aurten korritzerik izan ez duen arren, Canarias aldeko igoerak jokatu baititu.

**Ramon Maria LOITI**

Mendizale amorratua, 1992ko abuztuan, Hego Amerikako gailurrik altuenera, Aconcaguara, igo zuen. Loitik -30 gradutako tenperaturak jasan behar izan zituen. Aurten, berriz, Iparramerikako tonorrik garaiena, McKinley (Alaska), zapaltzea lortu du. Pakistan, Alpeak edota Indiako Tibeteko mendietan ibilia da.




**Bixente PAGALDAI**

Errekor bitxia du Pagaldai: Donostiako Maratoiko edizio guztiak (17) amaitu ditu. Bere denborarik onena 85ean egin zuen 2 ordu eta 29 minuturekin. Aurten, berriz, 2 ordu eta 47 minutu egin ditu. Lasarte eta Elgoibarreko krosetan ere parte hartu izan du eta berak dioenez, sekula baino ilusio haundiago dauka korrikan jarraitzeko.

**Ion ANDUEZA**

Aranzabal eta Berraondoekin batera, Realean jokatzen ari den bergararrak 14 urte ditu eta iaiztik Realaren 2. mailako kadeteetan jokatzen du. Zentral markatzaile postuan jokatzen du J.M. Rauleagaren aginduetara. Realera joan aurretik Bergarako infantiletan aritu zen eta lehenago hondartzetan antolatzen diren txapelketetan.



**Ion LAZKANO**

Estatu eta mundu mailan goi mailako mendi eskalatzailerik onenatarikoa da 25 urteko bergararra. Yosemite (EEBB), Patagonia eta Himalayako mendieta-ko pareta zailenatarikoa igo ditu eta hainbat bide berri zabaldu eta inork igo gabeko mendi gailur ugari eskalatu ditu, Patagoniako Paineiko dorreetakoak esate baterako.

**Asier LINAZISORO**

30 urteko bergararra, Gipuzkoako Squahs txapelduna izan dugu azkenengo bi urteetan. Euskadiko liga ere irabazi zuen orain dela hiru urte. 1989 eta 1990.ean, unibertsitate mailako Espainiako txapelduna izan zen. Squash-az gain, Snowboard-a ere egingen du negu partean eta Euskadiko eta Aragoiko txapeldun ordea da.



**Angel Mari IÑARRA**

27 urterekin saskibaloia utzi berri du Iñarrak. 1,98 m.ko altuera eta 95 Kg.ko pisuarekin, hainbat talde-tako *ala-pivota* izan da. Bergara, Juven, Goierrri, Ondarreta eta Arrasateko taldeetan aritu izan da, 3. eta 2. mailan. Iaz 1. go mailarako igoera lortu zuen Arrasatekin baina lan-gatik ezin izan du jokatzen jarraitu.

**Bihotz BERISTAIN**

15 urte ditu eta Bergarako eskubaloiak eman duen fruiturik emankorrenatarikoa dugu, oraindik gaztea den arren. Bergarako nesken kadete mailan ari da jokatzen eta abenduan jokatzen berri den gazte mailako emakumezko Espainiako Eskubaloi Txapelketan 2. postua lortu du Euskadiko selekzioarekin. Zentral postuan jokatzen du.





# IPAR CENTER

SAN LORENTZO POLIGONOA Tfnoa: 76 04 43 / Faxa: 76 04 44

## Aisialdi eta denbora librerako denda

### BRIKOLAJEA- ETXEA

APROBETXA  
ITZAZU  
ESKAINZA  
BEREZIAK

### IKARAGARRIZKO PREZIOAK

100 produktu baino gehiagotan.

- Erraminta elektrikoa
- Eskuzko erraminta
- Mobleria

### ETA GAINERA, AROTZERIAKO SAILAK

Aurrekontuak: sukaldeak, ateak, parketak, bainuak, etab...

### KIROLAK

#### SAILAK:

- Oinetakoak
- Arropa
- Ski-kanpaina berezia:
  - Ekipamendua
  - Osagarriak

### SAIL BEREZIAK

#### SAIL BEREZIAK:

- Jostailuak
- Larruzko prendak: kostu prezioan

ASTELEHENETIK LARUNBATERA: 10.00-13.30 / 15.30-20.00  
IGANDETAN: 11.30-14.00

EGUNERO  
ZABALIK!!

INFORMAZIO ETA  
AHOLKULARITZA  
ZERBITZUA

PARKINGA

EROSITAKOAZ ZEURE  
IBILGAILURAINO  
GARRAIATZEA

SUKALDE ETA  
ALTZARIEN  
AURREKONTUAK

TXARTEL BIDEZKO  
ORDAINKETAK



IPAR  
CENTER

EIBAR  
BERGARA ERDIA

GASOLINDEGIA

ELGETA

# Javier Retegi eta Eneko Oregi, bi bergarar Lakuan

*Retegi, Industria sailburu berria da eta Oregi, Hezkuntza sailburuordea*

**Javier Retegi** bergararra Industria sailburua izango da hasi berri den legegaldi honetan. EAJ, PSE-EE eta EAK osatu duten gobernuan Javier Retegi (EAJ) Industria saileko buru izango da. Retegi 1937an jaio zen, perito industrial da eta ezkonduta dago (hiru seme-alaba dituzte). Aurretik Industria eta Hezkuntza sailburuorde eta Ikerlane-ko presidentea izan da.

Bere ibilbide profesionala Mondragon taldean bete du batipat eta egunotan kaleratutako informazioaren arabera, Jose Antonio Ardanza lehendakaria bere defendatzaile nagusi-enetarikoa izan da Industriako Sailburu izendatzeko orduan. Javier Retegik adi-

erazi duenez, bere helburu nagusienetako bat Politika Industrialeko Plana garatzea da. Era berean, 3-R Planeko abalok berreskuratzearen garrantzia azpimarratu zuen. Retegik Jon Azua ordezkatu du Industria zuzendaritzan. Bergararrak bere kargua euskaraz zin egin zuen, kontseilari gehienak bezala, pasa den urtarrilaren 4ean.

Bestalde, Arabako Eusko Alkartasunaren presidentea den Eneko Oregi bergararra Hezkuntza Saileko sailburuorde izango da. Iñaxio Oliveri sailburuak Hezkuntzako sailburu-ordetako bat eskeini zion Oregiri, Unibertsitatea eta Ikerkuntzarena alegia.

Eneko Oregi ekonomi-



Gobernu berriari atera zioten argazkian, beheko ilaran (eskumatik lehenengoa) ageri da Javier Retegi.

an lizentziatua da eta IVAPeko (Instituto Vasco de la Administración Pública) Itzultzaile Zerbitzuko zuzendaria izan da orain arte. EA sortu zenetik, bertako afiliatua izan da eta 1991n, EAJ, EA eta EEK osatutako gobernuan, Arabako Hezkuntza Ordezkaritzako ordezkaria izan zen.

Azkenik, aurreko Berri-

garan aipatzen genuen bezala, Imanol Bolinaga (EAJ) Eusko Jaurlaritzaren senadoreetako bat izango da Madrilén. Jaurlaritzak hiru senadore izendatzeko eskubidea dauka eta badi-rudi EAJk bi ordezkari izango dituela Madrilén, Joseba Zubia eta Bolinaga bera. Aurreko legegaldian ere Senatuan aritu da lanean Bergarako alkate ohia.

## %50ko DESKONTUAK

# BASTER

Telesforo Aranzadi, 2

☎ 76 10 08

## ETB-1eko Goenkale telesaila jarraitzen al duzu?



**Nere Amaia Zabala**  
46 urte, langabetua

Ez, ez dut jarraitzen. Kulebroi oso konplikaturik da. Noizean behin ikusi izan dut baina ez zait gustatzen.



**Asier Irazola**  
23 urte, ikaslea

Bai, asko gustatzen zait. Ahal dudanean ikusten dut, ondo dago eta. Zein pertsonaia atsegin zaidan gehien? Ane.



**Mari Carmen Lasheras**  
35 urte, langilea

Ez, ez daukat denborarik. Ez zaizkit telesailak gustatzen, nahiago dut beste eratako programak ikustea.




**Jon Gallastegi**  
26 urte, langilea

Badakit jende askok ikusten duela baina nik pare bat kapitulu bakarrik ikusi izan ditut. Txapas, tabernakoa da gehien gustatu izan zaidana.



**Maite García**  
27 urte, langilea

Badakit Bergarakoren bat agertzen dela baina ez, ez dut ikusten. Batzutan ikusi izan dut baina denbora faltagatik ezin izan dut jarraitu.



**Andres Gabilondo**  
64 urte, jubilatua

Ez dut ikusten, etxean ez du inork jarraitzen. Egia esan, pelikulak eta horrelakoak bakarrik ikusten ditut noizean behin.



**zumelaga**  
JATETXEA

**IGANDETAN ZABALIK!!**

San Antonio, 5  
BERGARA  
☎ 76 20 21



DEBA  
**GARAIA**  
INMUEBLE ETA FINANTZA  
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar  
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

**Sugoi**

ERLOJUAK, ARTIKULO  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULADORAK...  
Irizar pasealekua, 2 behea  
☎ 76 59 54 BERGARA

**JESUS J. GIRALDO ARGÜELLO**

LISERIKETA APARATUA

*X izpiak, endoskopiak eta terapeutika endoskopikoa.*  
*LAGUN-ARO, Foru Diputazioa, Prebisa eta partikularak.*

Loramendi, 6 Torre Guzki 2.B ARRASATE



## Tren, bide, itobide...

Estreinatu berria dugu 95a eta bagoaz aldapan gora, ilusioz beteta. Beteko ahal ditu guztion itxaropenak! Badakartza baina gure herrian bertan sekulako eragina izango duten bi opari, Mal-tzaga-Urbina bide azkarra eta Abiadura Haundiko Trena. Garapena. Krisiari aurre egitea eta ahalik eta azkarren iritsi beharra gizar-tearen helburu ia bakarra bihurtu direnean, badirudi "dena" de-sarrollismoan oinarritu beharra dagoela eta proiektu hauen premi-az zalantzarik ere ezin dezakegula izan, gurekin zerikusirik ez du-ten zerbait aseptiko bezela agertaraziz.

Hori pentsatuko zuten bertakoen premiak eta nahiak aintza-koztat hartu gabe (TAV), proiektuok burutu dituztenak, eta ixil-ixi-lik aurrera eraman nahian dabilzanak.

Zela ulertu bestela baserri, inguru, zelai, baso, mendi, paisaia eta bertakoen bizitza betirako txikituko dituzten obra munstroei buruzko berri zuzen eta zehatzagorik ez ematea afektaturiko ba-serritarrei edota iritzi eta proposamenak ezkeini ditzaketen era-kundeei. Itxura eta azakeriak ez dira nahikoa!

Baina noiz arte segi dezakete gure baserri inguruek halako eraginak jasaten? Noizko halako beharrei buruzko birplanteaketa bat? Bitartean, eginda dauden azpiegiturak hobetzea, ahalik eta berri gutxien (edo bat ere ez) zabaltea eta baserri, auzo edo herri txikitakoek, garraio publikorako, hiritarrek duten eskubide berdina lortzeko eskaera ahaleginetan segi behar.

**Maite ARISTEGI**



## Lurraren prezioa

Urte bata joan eta bestea etorri eta, garai honetan ezagutzera ematen diren estatistiken artean Komunitate Autonomoko biztan-leria jeitsi dela irakurri ahal izan dut egunkarietan. Geroz eta gutxi-ago ei gara eta alde egin dutenen artean jende gaztea omen da gehiengoa. Datuak gora behera, gai horrekin lotuta biztanleen ko-purua baino kezkarriagoa dena zera da: hiriburuak zein herriek ezagutzen diharduten eraikuntza eta zerbitzuen konzentrazioa areagotu egin dela azken aldi hontan, Euskal Herriko lurraldeetan lehendik ere konzentrazioarako joera hori bazegoen arren. Arabako kasua da nabarmenena % 80a Gasteizen bizi delarik, baina Nafarroan eta Bizkaian ere hiriburuetako konzentrazio horiek nabarmenak dira. Gipuzkoa zen lurralderik ekilibratuena eta azken aldi honetan bizkor asko abiatu da besteen bidetik.

Baina eskualde edo komarken arteko desoreka kezkarria bada, kezkarriagoa da oraindik niretzat gure udalerrian gerta-tzen ari dena: azken hogeitau urteetan etengabe husten doaz inguru-ko herrixka eta auzoak hiriguneko konzentrazioaren mesedetan. Erraztasun osoak Bergarako hirigunearan etxeak eraikitzeko, babes ofizialekoak zein besteak, eta bitartean inguruko auzoetan lujo bat bihurtzen da etxe bat egiten hastea, lurraren jabea norbera ez ba-da behintzat. Azken notizia Bergarako Industrialde berriari buruz-koa lotu nuen nere kezkekin: Udaletxeak Unión Cerrajera fabrika zaharreko lur metro karratua 3.000 pezetatan erosi ei du. Berriz irakurri dut egia ote den, lur industrialaren prezio horretan!

Angiozarren etxeak egiteko lur urbanizagarria egon zedin hainbeste kosta zitzaigunearan gerora metro karratuko 7.000 pezeta eska zezaten, espekulaziorik gabekoak gainera jabearen esane-tan... uste dut badagoela zer orekatu emigratio/biztanleria asunto honetan. Administrazioak esan beharko lehen hitza, lurralde anto-laketetarako eta urbanismo departamenduak horretarako daude eta, ala ez?

**Jose Angel MIKEO**



**gizon emakume**  
Barrenkale, 35 BERGARA

**A mets**



- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak
- Zango erremolkeak
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50

**AMETS TAILERRAK**  
Berezano auzoa OÑATI

**IBARGUREN PENTSUAK**

**Biona pentsuen biltegia**  
**Bioter produktoak eta haziak**

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

**CAMACHO**

**Drogeria**  
**Usaindegia**

Bidekurutzeta, 24 BERGARA  
☎ 76 13 35



Goian, Gabon aurretik egindako afarian ateratako argazkia. Zutik, ezkerretik hasita hirugarrena, Unai Osa eta eskumatik hasita laugarrena, Aitor.

### Peña Osa Angiozarren

Aitor eta Unai Osa txirrindulari anaiei eskeinitako "Peña" osatu berria da Angiozarren. Aitor eta Unai itziartarrak dira eta Ortziko jabearen tarteak direla eta, "Peña" bat egiteko erabaki dute bertako txirrinduzaleekin. Oraingoz 18 lagun dira "Peña" eta animorik behintzat ez zaie falta aldatu diren lasterketa danetara joateko. Lehen irteera denboraldi amaieran jokatu zen Txitxarroko Igoerara egon zuten. Aitor Osa profesionaletan zuten da Euskadi taldean eta Unai, bertan afizonatuetan korritzen du Orbea taldearekin. Orainarte "Peña" antolatutako bi afarietan hasteko dagoen denboraldirako indarrak hartuko zituztela pentsatzen dugu.

### Bergararrak Venezuelan

1936an Venezuelara bizitzera joan ziren Romana eta Guadalupe Bilbao ahizpa bergararrek Esther Suinaga eta Amaia Zabaletaren bisita jaso zuten Gabonetan Caracasen. Romana eta Guadalupek harrera benetan bikaina egin zien; bazkari ederra egin ondoren, hemengo kontuei buruzko solasaldi luzea izan zuten.

Pedro Irizar Romanaren koinatua ere bertan izan zen eta guztiek egun ahaztezin bat igaro zuten.

Argazkian, Romana eta Guadalupe atzean, Esther Suinaga, Javier eta Ane Miren Romanaren seme-alaben artean.



# Goierri

## AUTOGIDARIEN ESKOLA

Fraiskozuri Plaza, 5 BERGARA ☎ 76 41 50



**LIZAR**  
ALTZARIAK

Dr Fleming, 5 ☎ 76 16 53



**Primerako antzezleak**

Urtirik abendura bitartean Jubilatuetan martxan egon den antzerki taldeak ipuin bat kontatu zuen larunbatean *Euskadi Irratian*. **Txetxu Altolagirre** aktore legazpiarraren eskutik, astean 4 orduz antzerkigintza lantzen aritu dira **Maite Aranburu, Rosario Garitano, Maria Pilar Larrañaga, Maria Lizarralde, Anita Suinaga eta Juli Urkizu**. Abenduan Tere Belokiren saioan ipuin bat kontatzeko proposamena jaso zuten; **Lurdes Iriondoren** *"Martin arotza eta Jaun Deabrua sendagile maltzurra"* izeneko ipuinean oinarrituta, Altolagirrek 25 bat minutuko gidoia prestatu zien eta aktorea hauek, irratinobelen antzera, *bizia* eman zioten aipatutako ipuinari entzuleen gozamenerako. Hala ere, 6 lagun hauek triste dira orain, momentuz klaseak eten egin direlako.

Ea oraindik ere bergararrok aktorea hauen talentuarekin gozatzeko aukera izaten dugun...

Goiko argazkian, Jubilatuetan egindako entsaiuetako bat. Ezkerretik eskumara, goian: Maria Pilar Larrañaga eta Anita Suinaga.

Behean: Rosario Garitano, Maria Lizarralde, Maite Aranburu eta Juli Urkizu.

Behekoan ipuina Euskadi Irratiko estudioetan grabatu zeneko irudi bat.



**Zertan dihardute ba?**



**Haritz Berraondo**

18 urteko pelotari antzuolarrak DVko Txapelketa irabazi zuen Unai Apeztegiarekin batera igandean Zarautzen; finalean Urretabizkaia anaiei 22 eta 16 nagusitu ondoren.

Aritzatalde frontoia toperaino bete zen (Antzuolatik ere autobus bat antolatu zen finalera joateko) eta lau pelotarietako partidua bikaina eskeini zuten.

Haritzen jokoa ere goraiatua izan da komunikabideetan. Bere hitzetan, *"ez daukat prisarik profesionaletara pasatzeko. Oraindik beste pare bat urtez afizionatueta jokatzeari komeni zait, asko ikasi beharra daukat eta"*. Haritz Lanbide Heziketako 5. mailan ari da.

**MUJIKA**

**Jantxidenda**

Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91

**INFERNUKUA  
TABERNA**

Masterreka, 23 ☎ 76 18 49

# Begoña Valle

Irundarra jaiotzez, Begoña Valle (29 urte) orain dela 20 bat urte etorri zen Bergarara bizitzera. Gaur egun ezkontuta dago, seme bat daukate eta "Donuts" enpresan bulegoan lan egin ondoren, Frontoiko tabernan lanean ari da orain dela bi urtetik.

- Bulegoa ala barra?
- Barra.
- Laneko gauzarik onena?
- Jendea hobeto ezagutzea.
- Poteoak gora ala behera egin du?
- Berdintsu baina gero eta gazte gehiago ikusten da.
- Frontoia berriztearen alde?
- Bai.
- Eta ixten denean, zer?
- Zabaltzeko zai egon.
- Pelota atsegin duzu?
- Bai.
- Bikoteka ala banaka?
- Bikoteka.
- Pelotari bat?
- Etxaniz. Espero dut besteak ez haserretzea...
- Biparetak ala gantxoa?
- Biparetak.



*"Barran lan egitearen gauzarik onena jendea hobeto ezagutzea da. Bai, pelota atsegin zait eta Etxaniz da nere pelotari faboritua. Gizon batengan sintzeritatea eta umorea baloratzen dut gehien. Semearekin gehiago irten nahi nuke"*

- Emakumerik etortzen da pelota partiduetara?
- Gutxi baina baten batzuk bai.
- Aposturik egin duzu inoiz?
- Ez, lotoan bakarrik jokatzen dut.
- Partiduetan gehien edaten den edaria?
- Kubatak. Eta jendeak ura ere asko edaten du.
- Hurbildu zaizun pertsonaiarik ezagunena?
- Argiñano.
- Zer baloratzen duzu gehien gizon batengan?
- Sintzeritatea eta umorea.
- Presumitua zara?
- Bai.
- Ileapaindegira zenbatero?
- Hiru hilabetez behin.
- Kirolik egiten duzu?
- Ez.
- Zenbat kafe egunero?
- Hiru.
- Ondo informatuta zaude?
- Ez gehiegi baina egunkariari gainbegirada bat ematen diot beti.
- Zerk ematen dizu beldurra?
- Taberna neuk bakarrik ixteak.
- Beherapenetan izan zara?
- Bai.
- Eta txoilorik aurkitu duzu?
- Ez.
- Gabonetan gehiegikeriarik?
- Ez, normal jan dut.
- Asmo berririk 1995erako?
- Bai, semearekin gehiago irten.

BILKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

**Larrañaga**

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R.S.I. 209374 - SS

**BERGARA**

**OILAGORRA**

**TABERNA**

Barrenkale, 21 BERGARA

PINTXO eta BOKADILOAK  
SEKULAKO MARTXA!!

**EUXEBIO II**

Irala Kalea z/g ☎ 76 07 92

**TOSHARE**

☎ 76 29 70



**ETXEBIZITZA**

**Garajea** plazak alokatzen dira Burdinaten. ☎ 76 12 36/43 37.

**Pisua salgai** San Pedro 21ean. ☎ 76 48 08.

**Pisua salgai** San Migel kalean. ☎ 76 02 13.

**Garajea salgai** Torrekuan. ☎ 76 16 68.

**Pisu txiki bat** alokatuko nuke. ☎ 76 25 81.

**Pisua salgai** Koldo Eleizalden. ☎ 76 56 90.

**Garajea salgai** Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

**Pisua salgai** Jon XXIII enparantzan. ☎ 76 13 75.

**Garajea** alokatzen da Koldo Eleizalden. ☎ 76 30 10.

**Pisua salgai** Artzamendin. ☎ 76 10 55.

**Garajea salgai** Zurradero 8an. ☎ 76 13 93.

**Garajea salgai** Kruz Gallastegin. ☎ 76 16 13.

**Etxea salgai** Osintxun. ☎ 76 28 70 (eguerdiz).

**Pisu bat salgai** Basarten. ☎ 76 25 45 (Javier).

**Garajea saltzen** da Ibargarai kalean. ☎ 76 44 25.

**DENETARIK**

**Pekines** txakurkumak salgai. ☎ 76 26 92.

**Egurrezko bi butaka** tapi-zatu eta guzti salgai. Oso egoera onean. ☎ 76 12 86.

**Braco** aleman txakurrak salgai. 1994ko ekainean jaiotakoak. ☎ 76 10 79.

**Cousteauren** kolekzioa (36 bideo eta bi liburu) salgai. ☎ 76 31 28.

**Lada Niva** (SS-AN) eta **Ford Scort** (SS-AD) kotxeak salgai. ☎ 76 00 51.

**Volkswagen Corrado** kotxea salgai (SS-AG). ☎ 76 38 16 (gauzez).

**Renault 19** 16v. kotxea salgai (SS-AJ). 53.000 Km. ☎ 76 24 02.

**Ford Fiesta** SS-AD kotxea salgai. ☎ 76 46 80 (gauzez).

**BBT** mendi bizikletarako Rond-fork suspentsio oleoneumatikoa salgai. ☎ 76 52 31 (gauzez).

**Sega Megadrive**ko jokoak salgai. 2.000 pezeta. ☎ 76 25 12.

Paseorako **bizikleta** egoera onean salgai. 9.000 pezeta. ☎ 76 16 51.

**LANA**

**Ingeles** klaseak. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

**BBB 3.eko** matematikako klase partikularrak hartuko nituzke etxean. ☎ 76 38 71 (Larraitz).

**OHO eta ingeles** klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Etxebizitzak** garbitzen ditut. ☎ 76 59 47 (Loli).

**Neska** batek era askotako lanak egingo lituzke. ☎ 75 24 47.

**BBB eta LH** klaseak. ☎ 76 24 31 (Eneko).

**Ettxeko lanak** egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 57 53 (Sonia).

**Matematika** eta Zientzietako klaseak. ☎ 76 06 50.

**Neska** bat behar da ettxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. ☎ 76 44 08.

**Ettxeko lanak** egingo nituzke. ☎ 76 53 21.

**Ettxeko lanak** egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 08 55 (Miren, gauzez).

**Ettxeko lanak** egin edota zaharrak zainduko nituzke. ☎ 76 32 58 (Ana).

**Ingeles** klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

**Matematika** finantziero klaseak. ☎ 76 05 43.

**Ingeles** Filologian lizentziatuak ingeles klaseak ematen ditu. ☎ 76 17 36.

**Euskarazko** klaseak hartuko nituzke. ☎ 76 05 97.

**Haurrak** zainduko nituzke. ☎ 76 45 93.

**Ingeles** klaseak ematen ditut. ☎ 76 26 63.

# San Martin Osasundegia

**DERMATOLOGIA**

UNITATEA

Garciandia Doktorea

**PATOLOGIA DIGESTIBOEN**

UNITATEA

Otazua Doktorea

**OBSTETRIZIA ETA**

GINEKOLOGIA UNITATEA

Serrano Doktorea

**PSIKOLOGIA**

UNITATEA

J.R Fernandez

**ZIRUGIA**

UNITATEA

Alberro Doktorea

Ramon Maria Lili, 2 • Tfnoa: 76 59 39 / 72 • Faxa: 76 25 72

# BONOFOTOA



## Aritz Balda

**Aritz Balda** jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, aurreko alean egindako galdera berak asmatu baitu. Argazkian agertzen ziren iturriak zein kale eta auzotan aurkitu zitezkeen galdetzen genizuen eta erantzun zuzena honako hau zen: **Masterreka kalean eta Osintxu**. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Aritz Baldari** eman dizkiogu. Zorionak!!

*Orain dela bi urte izandako elurtetan ateratako argazki honetan Bergarako hiru etxebizitza altuenak ikus daitezke. Zenbat pisu dauzka bakoitzak?*

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

Saria  
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta  
ekarri asteazken eguerdia baino lehen

**BERRIGARA**  
Errotalde Jauregia Bergara



TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	A
1. Errotagain	6	3	3	0	0	24	4	m u l t z o a
2. Madura	4	3	1	2	0	8	4	
3. Bildurbarek	4	3	2	0	1	10	8	
4. Ozaeta	4	3	2	0	1	8	7	
5. Mongatxurra	4	3	2	0	1	8	10	
6. Ufala	3	3	1	1	1	8	8	
7. Arloteak	2	3	1	0	2	7	11	
8. Kabia	1	3	0	1	2	5	9	
9. Bar Canalejas	0	3	0	0	3	7	15	
10. Angiozar	0	3	1	0	2	9	18	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	B
1. Arkupe	4	3	2	0	1	24	13	m u l t z o a
2. Etxagi	4	3	2	0	1	20	14	
3. Usoa	4	3	1	2	0	10	5	
4. OH Zerezos	4	2	2	0	0	9	5	
5. Pagomendi	3	3	1	1	1	6	8	
6. Uve Bikoitza	2	2	1	0	1	7	7	
7. Ogizun	2	3	0	2	1	9	10	
8. Revienta	1	3	0	1	2	8	19	
9. Guadalest	0	0	0	0	0	0	0	
10. Kayak OJ	0	2	0	0	2	5	7	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	C
1. Nahikari Hooll.	5	3	2	1	0	7	5	m u l t z o a
2. Hartu Zamak	4	3	2	0	1	24	9	
3. Eri	4	3	2	0	1	9	13	
4. Soropotroak	3	3	1	1	1	8	7	
5. A Ze Flaxa	2	1	1	0	0	6	3	
6. Kriterium	2	2	1	0	1	6	4	
7. Etxenagusia	2	2	1	0	1	9	11	
8. Amozkibar	0	3	0	0	3	4	10	
9. AH Biterrak	0	2	0	0	2	3	14	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	D
1. Kirolzaleak	4	2	2	0	0	14	3	m u l t z o a
2. Igandekoak	4	3	2	0	1	16	15	
3. La Juve	3	2	1	1	0	10	7	
4. Shaktale	3	2	1	1	0	5	4	
5. Ezinleike	3	3	1	1	1	8	13	
6. Krai	2	3	1	0	2	7	8	
7. Ari Ari	1	2	0	1	1	3	6	
8. Const. Bergara	0	1	0	0	1	1	4	
9. Nekrofilikos	0	2	0	0	2	7	12	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	E
1. Los Txupeta	5	3	2	1	0	11	5	m u l t z o a
2. Txipiron	5	3	2	1	0	7	3	
3. Pikapiedras	5	3	2	1	0	12	10	
4. Pata Negra	2	3	1	0	2	10	11	
5. Aldoka-Maldoka	1	1	0	1	0	4	4	
6. Paok San Juan	1	1	0	1	0	4	4	
7. Patxaran Team	1	3	0	1	2	11	14	
8. Atsedena	0	0	0	0	0	0	0	
9. Labegaraieta	0	3	0	0	3	5	13	

## emaitzak

Bildurbarek-Ozaeta ..... **1-2**  
 Ufala-Mongatxurra ..... **2-3**  
 Kabia-Madura ..... **1-1**  
 Usoa-Ogizun ..... **2-2**  
 Errotagain-Arloteak ..... **7-2**  
 Canalejas-Angiozar ..... **2-3**

OH Zerezos-Pagom. .... **5-2**  
 Kayak-Arkupe ..... **3-14**  
 U. Bikoitza-Guadalest .. **0-1**  
 Revienta-Etxagi ..... **1-12**

Eri-Hartu Zamak ..... **2-8**  
 Ari Ari-Ezinleike ..... **1-3**  
 Kriterium-Amozkibar ... **4-1**  
 Nahikari-Soropotroak .. **2-2**

Igandekoak-Nekrof. .... **4-6**

Labega-Los Txupeta .... **1-6**  
 Txipiron-Pata Negra .... **3-1**  
 Aldoka-Patx Team ..... **4-4**  
 Pikapiedras-Paok ..... **4-4**

## partiduak

### LARUNBATA

**Barruan**  
 9.00: Pata Negra-Labegaraieta  
 Aldoka-Maldoka  
 10.00: Aldoka-Pikapiedras  
 Krai  
 11.00: Ezinleike-Krai  
 Pikapiedras

### IGANDEA

**Barruan**  
 9.00: Const. Bergara-Shaktale  
 La Juve  
 10.00: La Juve-Igandekoak  
 Kriterium  
 11.00: Soropotroak-Kriterium  
 Nekrofilikos  
 12.00: Nekrofilikos-Ari Ari  
 Nahikari Hoolligans  
 13.00: Hartu Zamak-Nahikari H.  
 Ari Ari  
 16.00: A Ze Flaxa-Eri  
 Etxenagusia  
 17.00: Etxenagusia-EH Biterrak  
 Guadalest  
 18.00: Guadalest-OH Zerezos  
 Uve Bikoitza  
 19.00: Pagomendi-Uve Bikoitza  
 OH Zerezos

### Kanpoan

9.00: Angiozar-Ufala  
 Etxagi  
 10.00: Etxagi-Usoa  
 Arloteak  
 11.00: Arloteak-Bar Canalejas  
 Kayak Os Jardineiros  
 12.00: Ogizun-Kayak Os Jard.  
 Antolaketa Batzordea  
 16.00: Ozaeta-Errotagain  
 Mongatxurra  
 17.00: Mongatxurra-Kabia  
 Errotagain

## golegileak

1. Javi CAMBRONEL. 32 gol
2. Juan MATEOS. 24 gol
3. Juanjo IZUSKIZA. 23 gol
4. Aitor ELORZA. 21 gol
5. Iñigo PAGALDAI. 20 gol

**LOKATZAKO LIZENTZIAK**

Lokatza Ziklismo Esko- lako lizentzia egiteko as- moa duten guztiek San Martin plazako lokaletik pa- sa daitezke ostegunetan, 5etatik 7etara.

**SAN MARTINEN KANTXAK**

Beharreko berrikuntza lanak egin eta gero, San Martin Ikastetxean bi ka- nasta joku eta beste bi por- teria joku jarri dira. Bertan minibasket, saskibaloj, fut- bito eta futbol-7an jokatu ahal izango da hemendik aurrera.

**SAUNA ZABALIK**

Igerilekuetako sauna zerbitzua zabalik dago as- telehenetik. Astelehenetik ostiralera bitartean 4retatik 9etara erabili ahal izango da eta larunbat eta igande- tan goizeko 10etatik ordu- bietara. Beharrezkoa izan- go da aurretik txanda eska- tzea igerilekuetan bertan (76 20 51 telefono zenba- kia).

**SAN SILVESTREKO KROSA**

Oskar Alberdi duranga- rrak irabazi zuen abendu- ren 31n jokaturako San Silvestre krosa, 24 minutu eta 19 segunduko denbo- raz. Lehen bergararra Aitor Eraña izan zen, 12. tokian (26'30"). Guztira 100 par- taide izan ziren Zaleak-ek antolatutako proban.

# Agustin Aranzabal bikain bere lehen derbyan

## Aranzabal Peña sortzeko bilera larunbatean



Komunikabide guztiek goraiatu dute Aranzabalen lana.

**Agustin Aranzabal**

Realeko jokalaria bergara- rrak bere lehen derbya jo- katu zuen igandean San Mamesen Athleticen aurka. Gipuzkoa eta Bizkaia oso- an bezala, partiduak ikus- min handia sortu zuen

Bergaran ere eta Aranzaba- lek bere herritarren lagun- tza izan zuen; goizean 80 lagunez osatutako autobus bat abiatu zen Bilbo aldera eta arratsaldean beste 20 bat zaletu ere joan ziren Realak antolatu ohi duen

autobusean.

Aldi berean, beste za- letu askok beren kontura egin zuten bidaia eta ber- gararren presentzia nagusi- enetarikoa izan zen igan- dean Bilbon. Agustinek ez zien hutsik egin eta, pren- tsak eta zalegoak adierazi bezala, partidu borobila jo- katu zuen.

**Aranzabal Peña**

Iganderako antolatuta- ko bidaiarekin lortutako arrakasta ikusirik, Agustin Aranzabalen lagunek peña bat sortzeko ideia darabilte eskuarte berriz ere. Ho- rretarako, interesatutako *realzale* guztiei dei egiten zaie bihar larunbata, eguerdiko 12etan, Kultur Etxean egingo den bileran parte hartzeko. Asmoa le- hen urratsak finkatzea da.

## Zapatu honetan hasiko da Pala Txapelketa

**Larunbat honetan**, arratsaldean, Udale- ko Kirol Zerbitzuak antolatutako Pala Txapelketaren V. edizioari hasiera emango zaio Osintxun. 14 bikoteak bi taldetan banatu dira eta lehen jardunaldirako par- tidu hauek jokatu dira: A taldean, Pedro Martin eta Gorka Martin Alex Arroyo eta Aitor Inzaren aurka (14.00etan), Gorka

Azkarate-Valentin Zabalo/Jose Miguel Gaztelu-Patxi Rodríguez (14.45etan) eta Javi Ibarra-Xabier Zangitu/Jaio Manzanedo-Iñigo Aranzabal (15.30etan). B taldean, berriz, Mikel Etxaniz-Etor Larrañaga/Asier Agirrebeña-Aitor Ilarduia (16.15etan), Jesus Martínez-Joseba Otaño/Unai Arduaregi-Asier Iorda (17.00etan).

**MUJIKA**

**Burdinaki denda**

Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

**GURIA**

**Taberna**

Bidekurutzeta, 5  
☎ 76 20 34

**Iñigo Igartua** hirugarren geratu zen igandean Zamoran jokatuako Espainiako ziklo-kross txapelketan. Bere aurretik Francisco Pla valentziarra eta Abel Maceira galiziarra sailkatu ziren. Helmugan Igartuak minutu bat eta 6 segundu galdu zituen txapelkunarekiko. Lasterketa hasi zuten 30 txirrindulariek hamaika bira eman behar zioten 2.600 metroko zirkuito bati; hamargarren itzulira arte Igartuak bigarren postuari eutsi zion baina amaieran Maceira Galiziako txapeldunak bergararra gaititu zuen eta brontzezko dominarekin geratu behar izan zuen Iñigok. Bere atzetik Aitor Aburuzua eta Juan A. Cortes euskaldunak heldu ziren.


**Igeriketa probak.** Bihar larunbata, arratsaldez, Bergarako igerilekuetan infantil, jubenil eta nagusien probak jokatu dira. Igeri txapelketako 5. ihardunaldi honetan honako proba hauek jokatu dira: 50 m. libreak, 100 m. bular erara, 200 m. estilotan eta 4 x 100 m. estilotako erreleboak. Bertan Bergara Igeri Elkarteko 5 mutil eta 8 neska izango dira lehian. Bestalde, Bergarako waterpolo taldeak Fadurauren aurka jokatu du igandean Legazpiko igerilekuan.



**KIROL KARTELDEGIA**

- **Futbola**  
**Bergara-Mutriku**  
 Preferente maila.  
 Igandea, 15.45. Agorrosin.  
**Bergara-Urki A**  
 2. mailako jubenilak.  
 Larunbata, 17.15. Ipintza.  
**Bergara-Aurrera Ondarroa**  
 Lehen mailako kadeteak.  
 Igandea, 11.15. Ipintza.  
**Bergara-Urki**  
 2. mailako kadeteak.  
 Igandea, 9.45. Ipintza.  
**Bergara-Pasajes**  
 Lehen mailako infantilak.  
 Larunbata, 15.45. Ipintza.

- **Eskubaloia**  
**Bergara-Arrate**  
 Kadete mutilak.  
 Larunbata, 17.45.  
**Bergara-Leitzaran**  
 Jubenil mutilak.  
 Larunbata, 19.00.  
 Biak Kiroldegan.



- **Saskibaloia**  
**Bergara-Hernani**  
 Senior mutilak  
 Larunbata, 16.15.  
**Bergara-Ibai Lizeoa**  
 Jubenil neskak.  
 Larunbata, 12.15.  
**Bergara-Don Bosco**  
 Kadete mutilak.  
 Larunbata, 12.15.  
 Hirurak Kiroldegan.

**Euskadiko eskubaloi selekzioan**

**Amaia Samaniego** eta Bihotz Beristain Bergara K.E.ko kadete eskubaloi taldeko jokalariek Euskadiko selekzioarekin Espainiako Txapelketan parte hartu dute Zaragozan eta Hernanin urtarrilaren 2tik 5era bitartean. Euskadik txapelketa bikaina burutu eta bigarren postua eskuratu du, Valentziako selekzioa txapelduna izan delarik. Lehendabiziko partiduan 14 eta 12 irabazi zion Euskadik Kataluinari, bigarrean Valentziaren aurka 23 eta 14ko emaitzaz galdu zuten eta, azkenik, Asturias 17 eta 15 gaititu zuten.

Amaiak zazpi gol sartu zituen partiduko bakoitzean eta Bihotzek berriz gol bat lortu zuen.



Bihotz (zutik, ezkerretik hasita hirugarrena) eta Amaia (makurtuta ezkerrean), Euskadiko selekzioko taldekideekin.

**Usoa Pub**  
  
 ☎ 76 38 57  
 Irala, 1

  
**Gaspar**  
 JATETXEA, TXOKOLATGIA,  
 SELF-SERVICE-A  
 Barrenkale, 31      Tfnoa: 76 20 02      BERGARA



## San Martín polideportibua

**L**ehen, oiñ dala hamabost bat urte, futbituan, balomanuan eta balon zestaun sarri, plazan jokatzen zan. Erretratuko neskak "Compañía de María"-ko balon zesto ekipokuak die, Joseba Arteaga eta Joxean Iñarrak entrenautakuak.

Ekipo ona osatzen zeber eta erretratuan jokatu berri daben partidua irabazi eiñ zeber, askon irribarriak agerixan lagatzen daben moduan. Igual, jarraitu izen balebe gaur munduko liga inportantienetan eongo zien, ero-zeñek daki (batek daki).

**Zutik ezkerretik eskumara:** Joseba Arteaga, Eli Alberdi, Eba Conget, Laura Marcilla, Karmele Rementeria, Mari Karmen Velasco, Arantzazu Iturrikastillo, Joxean Iñarra.

**Makurtuta:** Marisol Arietaleanizbeaskoa, Rosa Iturrikastillo, Mari Karmen Vicente, Arantzazu Juaristi, Mari Jose Pineda, Nerea Urrutia, Mari Paz Carriet.

*Felipe Iñarra*

*Erretratua: Pol-Pol Mendizale Taldea*

**ZUBIETA**  
*elektragintza*

MOTORREN BOBINAKETA  
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea  
☎ 76 23 48



Atsedeen zentrua

**LOKARTU**

Koltxoi-denda

Orain SORALUZEN



ederfu

BARRENKALE, 23

☎ 76 29 65

BERGARA

## GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA,  
ZUBIZARRETA, ZULUETA, ESTEFANO, LABORRA eta RUIZ DK.ak.

- Azterketa ginekologiko osoak
- Minbiziaren aurretiko diagnostikoa
- Haurdunaldiaren kontrola
- Txekeoak
- Bularretako gaitzen unitatea
- Mamografiak
- Antzutasuna
- Antisorkuntza
- Menopausiaren tratamendua
- Dietak
- Sudurra, eztarria, belarria
- Analisi klinikoak

**GUZZI HAU  
ARRASATEN  
BERTAN,  
URRUTIRAGO  
JOAN BARIK**



Zerkaosketa, 17 behea ARRASATE  
Tfnoa: 79 20 18



centro  
hogar  
MUEBLES

**GRUPO**



**Amuebladora  
Mondragones**

Sartzen dena:  
zeuk behar dituzun altzariora

**ARRASATEKO BARIANTEAM**